

GASTEIZTARRAK ARRAUN THE WORLD 2018

UDAKO ARGAZKI-HIZKI LEHIAKETA

OINARRIAK

Oihaneder Euskararen Etxeak eta Gauekoak Elkarten Federazioak elkarlanean antolatutako lehiaketa.

1) GAIA

- 2018ko udan munduko edozein lekutan egindako bidaia, txangoa, egun-pasa... argazkien eta hitzen bitartez kontatu.

2) PARTE HARTZEKO MODUAK ETA BALDINTZAK

- Epea: **2018ko ekainaren 21etik irailaren 21era**, biak barne.
- Argazki-hizki lehiaketa:
 - **18 urtetik gorako** pertsonak har dezakete parte
 - 2018ko udan ateratako **20 argazkiz** osatutako **argazki-sorta** bidali behar da
 - Argazkiak editatu daitezke, gutxienez 300 ppx izan behar dituzte eta JPG edo PNG formatuan aurkeztu behar dira.
 - Argazki-sortari eta argazki bakoitzari **euskarazko izenburua** jarri behar zaio.
 - Argazkiekin batera egindako bidaia, txango edo egun-pasaren **azalpen laburra** bidali behar da (1500-2000 karaktere artean)
 - Argazki-sortako **argazki bat Facebook, Twitter edo Instagram sare sozialetara** igo beharko da, argazki sorta orokorraren **izenburua** zehaztuz. Igotzean **#GasteiztarrakArraun** traola erabili beharko da eta **@oihaneder_etxea** eta **@gauekoak** aipatu.
 - Argazki sorta eta testuak **oihaneder@oihaneder.eus** helbidera bidali behar dira
 - Egilearen honako datuak zehaztu behar dira: izen-abizenak, harremanetarako telefonoa eta emaila, jaiotze data eta ohiko bizitokia.
 - Posta elektronikoaren gaian *Gasteiztarrak Arraun The World 2018* jarriko da
 - Ez da kontuan hartuko izenburu edo/eta bidaiaren azalpenik gabeko argazki-sortarik.
 - Nahi beste argazki-sorta bidal daitezke. Egile beraren lan bat baino gehiago saritua suertatzekotan, sari bakarra jasoko du.

- Parte hartzaileak ez dira zertan gasteiztarrak izan; euskaldun orok har dezake parte lehiaketan.

3) EPAI-MAHAIA ETA EPAIA

- Epaimahaia Oihaneder Euskararen Etxeko teknikari batek (idazkari lanak), Arte eta Lanbide Eskolako irudi saileko irakasle batek, Gauekoak Elkarten Federazioko kide batek eta lehiaketan laguntzaile diren Gasteizko euskara elkarteetako kide banak osatuko dute.
- Epaia ematerako orduan baloratuko dena:
 - Argazkien originaltasuna, kalitate artistikoa eta teknikoa
 - Gaiarekiko lotura
 - Bidaia, txango edo egun-pasaren azalpena
 - Aurkezpen publikoak piztu dezakeen interesa
- Epaia 2018ko urriaren 2an jakinaraziko da, Oihaneder Euskararen Etxeko eta Gauekoak-eko webguneetan (www.oihaneder.eus / www.gauekoak.org)

4) SARIAK

- **Lau sari** emango dira **bi kategoriatan** banatuta (kategoria bakoitzeko bi sari)
 - 1) 18-30 urte bitartekoak
 - 2) 30 urtetik gorakoak
- Proiektu irabazleen egileek **Durangoko Azokan asteburu-pasa kulturala** irabaziko dute:
 - 2 lagunentzako bi gautako egonaldia Durango ondoko Garaiko landetxean (150 €)
 - Azokan gastatzeko 100 €ko bonoa
 - Guztira: **250 € sari bakoitzeko**
- Sariak ezingo dira metatu.
- Irabazleak ezingo balu sariaz gozatu hirugarren pertsona bati emateko aukera izango du antolakuntzarekin horrela adostuz gero.

5) ARGAZKI ERAKUSKETA

- Argazki-hizki lehiaketan saritutako lanekin argazki erakusketa egingo da Oihaneder Euskararen Etxean.
- Irabazleek argazki-sorta bakoitzetik 6 argazki aukeratu beharko dituzte erakusketan jartzeko.

- Pantaila digital batean lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak ikusi ahalko dira.
- Erakusketa 2018ko urrian zehar egongo da ikusgai.

6) AURKEZPEN PUBLIKOAK

- Argazki-hizki lehiaketako irabazleek bidaia, txango edo egun-pasaren aurkezpen publikoa egingo dute. Horretarako argazkiekin aurkezpen bat prestatuko dute (PowerPoint, Prezi edo antzerako euskarriaz lagunduta...).
- Oihaneder Euskararen Etxeak eta Gauekoak-ek Gasteizko GEU, Zizta eta Sarburu elkarerekin elkarlanean, Gasteizko lau leku bilatuko dituzte aurkezpenak egiteko.
- Aurkezpenak 2018ko urrian izango dira.

7) OHARRAK

- Lehiaketa edo oinarri hauei buruzko edozein galdera argitzeko honako posta elektronikora jo dezakezue: oihaneder@oihaneder.eus edo telefono hauetara deitu: 945 16 18 30 – 615986831
- Aurkeztutako argazkiak Oihaneder Euskararen Etxearen esku geratuko dira, eta argazki horiek erabiltzeko eskubidea beretzat gordeko du, betiere egilearen izen-abizenak aipaturik.
- Lehiaketaren antolatzaileek argazkien baliozkotasuna erabakiko dute. Argazkiren batek baldintza teknikoak beteko ez balitu, edo edozein arrazoiengatik (iraingarria izateagatik, esaterako) lehiaketaren izaerarekin bat ez datorrela iritziko balute, ez argitaratzea erabaki ahalko dute.
- Parte hartzeak oinarri hauek eta epaimahaiaren erabakia onartzea dakar.
- Antolatzaileek bere esku izango dute oinarri hauetan jaso ez den edozein gorabehera ebaztea.